

## HAUR ETA GAZTE LITERATURAREN PROGRAMA

**Deskriptiboak:** Haur eta Gazte Literatura eta bere Didaktika. Lehen Hezkuntza.

### **Helburuak:**

- 1- Haurraren garapen orokorraren aldean Haur eta Gazte Literaturak duen garrantziaz jabetu eta, irakasgai honetan eskola emateko behar diren trebetasun didaktiko eta gaitasunak jakitea, oro har.
- 2- Haur Literatura folklorea oinarritzen dela aztertzea.
- 3- Historian zehar Haur Literatura izandako bilakaera eta horren arabera eragipena sakontzea.
- 4- Haur eta Gazte Literaturaren arloko testu eta diskurtso-mota batzuk lantzea.
- 5- Ahozko nahiz idatzizko testuak aukeratzeko gaitasuna izatea, Psikopedagogian eta Literaturan oinarrituriko irizpide koherenteen arabera.
- 6- Irakurzaletasun teknika eta trebetasun batzuk ikastea.

### **Edukiak:**

- 1- Haur eta Gazte Literatura: kontzeptua. Ezaugarriak. Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Diseinuan.
- 2- Euskal Mitologia: kontzeptu orokorrak. Pertsonaia mitologikoak. Sinbologia. Mitologiaren txertaketa Haur eta Gazte Literaturan.
- 3- Haur Literaturaren historia.
- 4- Haurrentzako testu-motak, ahozkoak zein idatzizkoak, klasikoak eta egunekoak.
- 5- Irakurzaletasunak Psikopedagogiaren arabera
- 6- Irakurzaletasuna pizteko estrategiak.

### **Metodologia**

Modu ezberdinez joango dira garatzen irakasgai honen edukiak hemengo apunteak oinarritzat harturik: bai irakasleak egingo dituen azalpenen bitartez bai eta ikasleek beraiek egindako bakarkako edota taldekako lanak eginez ere (e.a. testuen iruzkin literario eta psikopedagogiakoak prestatzen, gai monografikoen lantekaz, ariketa sortzailearen praktikaz... ).

### **Ebaluazioa**

Azterketa idatziaren bidez eta ikasturtearen azkenean kalifikatuko da, batez ere, ikasleen ezagutza.

Azterketa 4 galderaz osotuko da: lehenengo bietan arlo teorikoa neurtuko da, eta beste bietan landutako testuen azterketari buruzkoa.

Bestalde, ikastaroan zehar eginiko hizketaldietan parte hartzea edo eta literatur lantegietan sortutako lanak ere kontuan hartuko dira nota orokorra jartzerakoan.